

IDIAZABAL

Eskolako Agenda

21

EDERRA GURE HERRIA

Ariztiko haritza
ta eguzki printza
elkarrekin dantzan dabilta.

Txomenanen
txio-txio
txoriak eta Bonifazio.

Kalbarioko sagarrak,
katuak sagutxoak
xaxaka,
aurraxeago sahasa.
Hau bai saltsa!

Ederra ur parrasta
plazako iturrian.
Ederrak haurrak irrika
parke berrian.
Ederrak, arratsa, arrosak,
trumoia, krabelinak...
gure herrian.

Maidar Agirre

2010 - 2011 ikasturtea

**GURE INGURUKO
BIODIBERTSITATEA
EZAGUTZEN.
BA DUGU NORI
ESKERTU!**



Biodibertsitatea naturan arlo guztietan ematen da. Eskolan hamaika ahalegin egiten ditugu orokorrean aniztasun osasuntsuaren alde. Hau da, eskola komunitatea osatzen dugunon arteko harremana anitza eta aberatsa izateko baloreak landu eta zainduz.

Aurten bereziki Eskolako Agenda 21 proiektuaren baitan **BIODIBERTSITATEA** gaia lantzeari ekin zaio, bere zentzurik zabalenean. Hau dela eta urteetan aurrera daramagun ahalegina gehixeago taxutzea lortu dugu. Ikasleen ordezkariak bilerak, udalarekin hartu emana, eskolako curriculumak aberastea, oinezkoen trena, herriko inguru ezberdinen behaketa eta azterketa lanak, elkarbizitza astean zuhaitzen landaketa eta aniztasun botanikoaren lanketa, mendi irteerak, trukerako merkatu txikia eta azkenik baratza. Azken hau, 2. zikloko ikasleekin tailer moduan landu dugu bereziki, hala ere eskolako ikasle guztiek izan dute unean unean baratza ezagutu eta esperientzia ezberdinak aurrera eramateko aukera.

Funtsean, elika katearen prozesu guztia zuzenean ikusi, esperientziatu eta bizi ahal izatea da **ESKOLAKO BARATZA**ren xedea. Honekin kontsumo ohiturak aztertzea, ingurunea hobeto zaintzea, konpostaiaren prozesua ezagutzeko, elikadura orekatua eta garaian garaiko barazkien lanketa ... hamaika lotura egin ditugu.

Gainera txalogarria eta oso aberasgarria izan da eskola komunitateko **guraso eta aiton amonen esperientzien trukaketa**. Beraien ezaguerak ikasleei helarazteko eskaini diguten denbora, arreta eta gertutasunagatik, **eskerrik asko guztioi!**



BIODIBERTSITATEA

ZUEKIN, ZUEI ESKER...TXALO BERO BAT

Bizpahiru urte igaro dira **“Oinezkoen Trena”** egitasmoa martxan jarri genuenetik; egun, hor darrain ttipi-ttapa, ttipi-ttapa piiiii, geltokiz geltoki, bidea egiten bere errailetatik irten gabe eguneroko joan etorrian ibiltarien ilusioak pizten. Poza iturria izateaz gain, osasungarria, ekologikoa, adimentsua... ere badelako; mila esker eguneroko bultzakada horretan proiektu hau posible egiten ari zareten guztiei .



Gure inguruan aitzindari izatetik eredu bilakatu da, eta hau, neurri handi batean, **zuei esker** izanda: Maitane Urteaga, Jolanda Gomez, M^a Karmen Arostegi, Elena Iparragirre, Zeles Otegi, Lierni Galarraga, Iratxe Hormaetxe, Jaione Lasa, Pili Mujika, Joxe Goikoetxea, Axun Aldanondo, Maria Monroy, Jone Iparragirre, Alixi Arrizabalaga, Roberto Gelbentzu, Eider Katarain.

NATUR GUNEEN BARRUTIETATIK, IKUSMIRAN

Urteak dira herriko mendi sailekoekin batera, eskola komunitateak mendi irteerak antolatzen dituela. Urteak dira herriko, eskualdeko eta herrialdeko, hainbat eta hainbat mendietara irtenez, inguruko baso, erreka zulo, landa, zoko moko eta bazterrak ezagutuaz, ikasten eta gozaten daramatzagunak. Urteak dira izadiaren amaraunean eta amaraunetik elkar errespetuan, elkar bizitzen ikasten jarriak garena. Urteak dira ingurumena kontserbatu eta edertu aldera; zuhaitz eguna, erreka garbiketak, parke txukunketa lanak, ikas-bidai botanikoak... antolatzen dihardugunak. Urteak dira taldea osatu, 40/50 lagun inguru mugitzen gara, eta, hilabete behin, sintoni ederrean, gauza asko konpartituz, gabiltzanok.




Txoko berde honetatik gure eskerrik beroenak **Antonio Berasategi** herritarrari aspaldiko urteetan egiten ari den lanarengatik eta laguntzeko duen prestutasunarengatik.



Eskolako Agenda

21



PILARRENEATIK TXOMENANERA, SALTOKA

1. eta 2. mailako ikasleek, ikasturteko bi sasoi ezberdinetan, Pilarreneko parketik Txomenaneko parkera joan etorrian gabiltza, behaketa lanetan. Tartean konturatzen ari gara, izadia, neguan eta udaberrian modu ezberdinean ageri dela; neguan, besteak beste, klima baldintzak eraginda lo hartzen duela, eta udaberrian, aldiz, esnatu, eta landareak eta animali/mozorroak bizia hartzen dutela.

Ikusi eta ikasten ari gara gure parkeetan mota askotako bizitza dagoela, eta honek, gure bizitzari onura asko ekartzen dizkiola: txorien kanta oso polita dela, tximeletaren hegaldia dotorea dela, eta bere koloreak erakargarriak, loreen usaina ongi sartzten dela gure sudur zuloetatik, landareek arnasten dugun airea garbitu egiten dutela, eta moztorro/intsektu askoren bizileku eta ezinbesteko janaria ere badela...

Ikasi dugu, naturaren mesedetan, txukun eta arduratsu jokatu behar dugula. Naturaren osasun onak gure mesedean eragiten duela, gu ere naturaren parte zuzena garela.

Bidean, eleizatik hogeit metroetara, errepidea gurutzatuta, berde gune magiko bat ezagutu dugu; bertan, harraska luzexka batean, gure usaimena mugiarazten duten landare lurrintsuak daude: Labanda, Erromeroa, Salvia, Melisa, Santolina ...

Hona iritsita eta lore/landare kontuekin gabiltzala ezin utzi aipatu gabe, **M^a Karmen Urteaga**, natur zaintza eta babesean emakume guztiz sentibera eta eredu, bera da gure ingurua polit eta eder mantentzen ibiltzen dena, bera da harraskaren sortzaile eta hornitzaile. **BEJONDAIZULA!** Eta eskerrik beroenak zaren bezala, zarelako.



URTSUARAN ERREKAKO URETAN, BLAI

2. ziklokoek Urtsuaran erreka hurbildu gara, eta, bertako uretan murgildu, behaketa lanak egitera. Berehala konturatu gara, erreka, animalia eta landare ugarien bizilekua dela; beraz, uraren eta inguruaren egoerak modu zuzenean eragiten duela bertako bizidunengan.

Erreka inguruaren egoerari dagokionez, esan behar da, nahiko zikin zegoela, eta bertatik, zaborra dezente ateratu genuela; hau nahikoa ez, eta, isurketak ere badirela konturatu gara.

Uraren egoerari dagokionez: PHa, uraren oxigenazioa, nitrato eta fosfato- en neurria eta uraren tenperatura hartzen ihardun dugu. Bestetik, erreka eta bere ingurua garbi eta txukun mantentzeko jarrerak landu ditugu.



BIODIBERTSITATEA

KONPROMISOAK

Ingurumenak guztion partehartzea behar duenez, gutako bakoitzak konpromiso batzuk hartzeko prest gaude:

- Eguneroko joan etorrietan, distantzia laburretan, kutsadurarik sortu gabe, oinez edo txirrinduz ibiliko naiz.
- Beti eta non-nahi, arauak kontutan izango ditut, modu txukun eta errespetutsuan jokatu ahal izateko.
- Zaborrontziak erabiliko ditut, ingurua txukun eta garbi mantentzeko.
- Landareak eta animaliak begirunez tratatuko ditut.
- Baratzera jakinminez eta grinatsu inguratuko naiz.
- Eskolatik edo udaletxetik antolatzen diren parke, erreka, lorategi... garbiketetan partaide izango naiz.
- Ura modu arduratsuan kontsumituko dut.
- Gelako eta etxeko landareak ureztatu, bitaminak bota eta zainduko ditut.
- Minik, kalterik sortu gabe jolastuko dut parkean, errekan...
- Beharra dagoenean bakarrik piztuko ditut argiak.



PROPOSAMENAK

Landutako gaiaren inguruan, Udalari helarazi nahi dizkiogun proposamenak honakoak dira:

1. Zigor auzoan, maiz, autoak gaizki aparkatuta izaten dira, "Oinezkoen Trenaren" martxa tratatuaz.
2. Zuhaitz egunean landatutako arbolak babes neurriak eskatzen dituzte.
3. Txomenane eta Pilarrene parkeetan hainbat txartel informatzaileak hautsita daude eta berritu behar dira.
4. Urtean behin edo, erreka, parke, lorategien garbiketa eguna izendatzea, auzolanean lana egin ahal izateko.
5. Errekara zaborrik ezin dela bota adieraziz, kartelak jarri.
6. Eskola baratzeko landareak ureztatzeko ura behar da.
7. Eskola Baratza eta Haur Eskola artean dagoen bidexka edo pasilloa txukundu behar da.
8. Hormetako kartelak kentzea.
9. Eskola atarirako bi lorontzi handi behar ditugu.

